


LEZO ETA SANTIAGOKO BIDEA

Erdi Aroko garaietatik iparraldeko erromesek maiz zeharkatu izan dute Lezo, Santiagoko bidearen adar bat, hain zuzen ere Lapurdi atzean utzi ondoren Hondarribitik barrena zetorrena, bertatik igarotzen baitzen. Horrela, esate baterako 1716. urtean erromes bat, Pedro de Fossentene frantsesa, Galizako Santiagotik itzultzerakoan gure herrian hil zen, eta bertako San Juan Bataiatzailearen elizan ehortzia izan zen. Beraz, lezoarrei ohizkoak zitzaizkien bidekari atzerritar haien ibilerak eta joan-etorriak.



Apaiziarza baserria (1.993)

I. LEZOKO BIDEA

I.1: Gaintxurizketako Gurutzea

Bidasoaz bestaldetik zetozen erromesak, Hondarribiko Santiagotxo ermita gibelean utziz, Jaizkibel mendiaren hegoaldeko maldetatik barrena abiatzen ziren Gaintxurizketako buru basati eta arriskutsuko gurutzerantz (alderdi honetako lapurreta eta gertakariak aipamen berezia merezi lukete). Gaurko zaharrenek inoiz ezagutu ez duten Gaintxurizketako harrizko Gurutze honi dagokionean, badakigu nola urtero, San Markos egunarekin, lezoarrek eliz-itzulia egin ohi zuten bertara.

I.2: Santiagotxo ermita

Erromesen hurrengo urratsa Lezoko Santiagotxo (Santiago, Santutxo) zen, hots, Apaiziarza eta Gainza baserrien arteko ermita (ikus: Hondarribiko Udal Agiritegia, E/7/II/51/7). Dena den, 1808. urteko gerra bitartean elizatxo horrek zutik iraun bazuen ere, gaur egun kokaguneko zelaiaren izenak (Santiagotxo) besterik ez du gordetzen haren lekukotasuna. Adi-adi dantzugu, ordea, 1924. urtean jaiotako Joxe Angel Etxegoienek dioskunean soro honetatik tarte laburrera dagoen Apaiziarza baserria (larza, Apaiziarzazar) orain dela bostehunen bat urte erromesen ostatu izan zela, eta era berean dakusagu bidekarien zaldientzat etxearen ondoan eraikitako babes-harresiaren azken aztarnak erakusten dizkigunean. Halaber, baserriaren ipar hormaren erpinean kokatutako harearritzko gurutzea aski adierazgarria da, bat baitator inguruaren iraganeko izakera erlijiosoarekin.

Santiagotxotik irten eta ibilaldi motz bat egin ondoren erromesak Lezoko herrigunera heltzen ziren.

I.3: Gurutze Santua

Lezoko plazako Gurutze Santuaren ermitak ospe handia izan zuen Santiago bideko gurleku bezala, eta Lope Isastikoaren esanetan lagun asko etortzen zen bertara herrialde guztietatik. Honela, XVI. mendeko azkenaldian, eraikin zabalago baten behar-rean, harearritzko basilika berriaren eraikuntzari hasiera eman zitzaion Isastitarren bultzadaz, eta bertan erromesen laguntzarako gaixotegia ere antolatu zen.

XVII. mendean, hots, 1647, 1649 eta 1650. urteetan Juanes Zialzetakoak basilikako burdinsare handia jarri zuen, eliz barruan erromesek lotarako zuten tokia aldare ingurutik banantzeko. Geroxeago, 1682. urtean burdinsarea tokiz aldatua izan zen, lehenengo arkutik bigarrenera eramanez, Domingo de Ruza Salazar harginak orduan bukatu baitzituen zazpi urte lehenago hasitako zabaltze lanak.

Ermita zaharraren aintzinasunaz mintzatzerakoan, ordea, gogorarazi beharra dugu 1490. urte inguruan jaiotako apaiz batek, hots, Juan Martinez Lezokoak (+ 1560), ez zekiela noizkoa zen bertako Gurutze Santua, ez eta hona nork ekarri zuen ere. Alabaina, XVI. mendean herriko letragizon batzuek ziotenez San Leon, Baionako apezpikua, izan daiteke irudiaren iturburua, ez dakigularik gaur egun haren jatorriaz kontatu ohi diren ipui edo alegien berri bazuten ala ez.

Hala, Manuel Le-
kuonak gaur egungo
gurutzea XIII. mende-
koa dela bazioen ere,
gotiko itxurakoa, ber-
tan hori baino zaha-
rrago bat egon zite-
keen lehenago. Au-
kera hori inolaz egiaz-
tatu ez badaiteke ere,
hemen argibide gisa
argitara dezakegu hi-
rurogeita hamar urte-
tako Maria Perez Jus-
tizkoak, berrogei urtez
Lezoko San Juan Ba-
taiatzailearen elizako



Gurutze Santuaren basilikako ezkiladorrea (1.988)

serora izan zenak, 1605. urtean azaldutakoa: alegia, ermita zaharraren garaietan irudiak zurezko arku bat zuela estalki gisa, eta bertan, aspaldidanik egindako pinturen (erromaniko itxurakoak?) bidez ikusgai zegoela Kristoren pasioaren historia.

Bestalde, badakigu XVI. mendean gurutzea garbitu eta eraberritu egin zutela Carlos V.aren garaietan Flandesen ihardun zuen Miguel de Darieta Bazkardö kapitainaren n detxean.

I.4: Kaia eta Beheko Errota

Gero, Lezoko Gurutze Santuan izan ondoren, erromesak Kaiko eta Beheko Erro-
tako ontziralekuetatik barrena Herrerarantz abiatzen ziren Lezoko emakume txalu-
parien eskutik, itsasadarra iraganez, tartean batzuek geldiune bat ere egiten zutelarik
Hondarribi aldeko Pasaian (Donibane). Herrerako ontziralekutik oinez jarraitzen zuten
Donostiara, Mirakruzeko gainetik aurrera.

II. SALBATOREKO BIDESKA

Dena den, orain arte aipatutako bidez gain (Hondarribia-Lezo-Donostia) baziren
beste bideska eta zeharbide batzuk, garrantzi txikiagokoak, Lezo Oiartzungo bidea-
rekin (Irun-Oiartzun-Astigarraga) lotzen zutenak; esate baterako Salvatore ermitakoa,
non agertu baitzen erromes baten hilotza 1756. urtean, hain zuzen ere Lezoko Gabiria
eta Matejone baserrien arteko estratan.

Nahiz eta Oiartzungo lurretan kokatua egon, hots, Lezoko lurrekin mugakide den
Agerrezar (Agirre) baserriaren behekaldean, lezoarren eliz-itzuliak egin ohi zituzten
gaur egun suntsituta dagoen Salvatoreko ermita hartara.

LANDER ZURUTUZA